

Hezkuntza sistemek sortzen duten etorkizuna

Gaur egun, argi dago hezkuntza lege guztien helburua ikasleei beren bizitza pertsonalean eta profesionalean aurrera egiteko beharrezkoak diren trebetasunak eta ezagutzak ematea dela, bai eta haien garapen sozial eta emozionala sustatzea ere.

Hezkuntza, gizatearen zati garrantzitsua izan da betidanik, nahiz eta historian zehar irakatsi eta eman den modua izugarri aldatu den. Antzinako gizarteetan, hezkuntza pertsona dirudunentzat eta boterea zutenentzat bideratuta zegoen eta liderren eta gobernariaren prestakuntzan zentratzen zen. Gizarte modernoaren sorrerarekin, hezkuntza eskubide unibertsala bihurtu zen. Industria Iraultzan zehar, hezkuntza etengabe aldatzen ari zen lan-merkatuko pertsonen premia bihurtu zen. Hezkuntza eskuragarriago bihurtu zen heinean, gobernuek rol aktiboagoa hartzen hasi ziren haien erregulazioan eta finantzaketan. Gaur egun, herrialde gehienek hezkuntza-sistema nazionalizatua dute, eta Estatuak zuzentzen du.

Hezkuntza-sistema modernoak hainbat maila ditu, haur-hezkuntzatik hasi eta goi-mailako hezkuntzaraino. Maila bakoitzak bere hezkuntza-egitura eta hezkuntza-helburuak ditu, eta ikasleak etorkizuneko bizitzan izango dituzten erronka eta aukeretarako prestatzeko diseinatuta dago.

Gauza da herrialde bakoitzeko kultura-herentzia eta legeak egiteko ardura duten pertsonak desberdinak direla, eta horrek, munduko leku ezberdinetan modu desberdinean irakastea eragiten du. Gure kasuan Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sistema dugu, honek bermatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren haur guztiek hezkuntza izateko eskubidea izatea, baita bizi diren auzoan edo herrian ikaspostu bat izateko eskubidea ere, eta leku horietan eskolarik ez badago, hurbilen dagoen ikastetxean.

Herrialde bakoitzaren irakasteko metodoa eta hezkuntza sistema desberdinak direnez, Pisa txostenak ikasleen errendimendu akademikoa ebaluatu eta alderatzen du. Txosten hau Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen (ELGA) ekimena da, hiru urtean behin egiten da, eta mundu mailako hezkuntzaren egoerari buruzko baliozko informazioa ematen du.

80 herrialde baino gehiagotako 15 urteko ikasleen trebetasunak eta ezagutzak neurtzeko balio du, funtsezko arloetan, hala nola irakurketan, matematikan edo hizkuntzan. Borondatezko proba da, eta ez da datuen memorizazioa ebaluatzerantz mugatzen; aitzitik, ikasleek mundu errealeko problemak ebazteko eta, beraz, beren ezagutzak modu praktikoan aplikatzeko duten gaitasunean zentratzen da.

Txosten honek, esaterako, gure herrialdeak baduela hobetzeko tartea agerian uzten du, bai irakasteko eta ikasteko prozesuetan, bai ikasleen atxikipenean ere, eskola bertan behera uzten duten gazteen ehunekoa Euroguneko handienetako bat baita. Adituek azpimarratu dutenez, aipatutakoaz gain, hezkuntza-sistema hoberean dituzten herrialdeen ereduari jarraitu behar diegu, irakaslearen figura indartzeko, programa akademikoa lan-merkatuan nagusi den errealitatera egokitzeko eta zentzuzko berrikuntzaren alde egiteko.

Horien adibide hoberenetakoa Finlandia da. Finlandia ezaguna da munduko hezkuntza-sistematik onenetakoa duelako. PISA txosteneko emaitzak altuenetakoa izan ohi dira. Finlandian, hezkuntzarako sarbidea konstituzio-eskubidea da. Herri honetako haurrak sei urterekin hasten dira eskolan, baina gurasoek haurrak lehenago matrikula ditzakete jolastuz ikasten duten ikastetxeetan. Irakasle finlandiarrak asko errespetatzen dituzte gurasoak, ikaslearen premietan jartzen dute arreta guztia eta askatasuna ematen diote trebetasunak garatzeko. Gainera, sistemak apustu egiten du ikasleek denbora librean izan dezaten autonomoak izateko eta beren kabuz erabakiak hartzeko, eta beraz, ez dituzte betebeharrekin zamaten.

Laburbilduz, etorkizuneko erronkei aurre egiteko gai diren pertsonak prestatzeko, gure hezkuntza-sistemak orientazio akademikoa eta profesionala, prestakuntza-programen eskaintza eta kalitatea hobetu behar ditu, baita irakasleak berritu ere. Hona hemen Education at a Glance 2019 (Hezkuntzaren Panorama 2019), duela gutxi argitaratutako Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) azken azterlanaren datuetatik ateratako ondorio nagusia: gure hezkuntzak ahultasunak erakusten ditu.

Txosten horretan, aldi berean, herrialdeak ikasleak prestatzeko eta lan-munduaren erronketarako prestatzeko gomendio batzuk ematen ditu. Gomendio horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: orientazio akademikoan eta profesionalean inbertitzea, ikasleei kalitatezko prestakuntza-programak eskaintzea eta FP-ak indartzea, irakasle-eskasia saihesteko irakasle-taldea berritzea, hezkuntza-sistemaren eta lan-merkatuaren arteko harremana sendotzea eta hezkuntzan inbertsioa handitzea.

Beraz, inkestak azaldutako proposamenak jarraituta, gure hezkuntza-sisteman aldaketak ematea izango litzateke aukerarik aproposena nire ustez. Horrela, haurrak gaur egun ez dituzten eta behar dituzten gaitasunak lortuko lituzkete.

INFOGRAFIA:

[Sistema Educativo de Finlandia: el mejor modelo educativo de Europa - Dragon American School](#)

[Presentación de PowerPoint \(euskadi.eus\)](#)

[Sistema educativo finlandés \(infofinland.fi\)](#)

[Definición y concepto de Sistema educativo | Conceptualia](#)

[Sistema educativo: comparativa Estados Unidos vs España - academiadevuelo.es](#)

[Los 11 mejores sistemas educativos del mundo - Forbes España](#)

[Distintos países, diferentes formas de aprender \(lavanguardia.com\)](#)

[5 recomendaciones de la OCDE para mejorar la educación en España - educaweb.com](#)

[¿Qué es el informe PISA y para qué sirve? \(educo.org\)](#)